

FUNTSEZKO ELKARTEAK:

Gure proiektua hainbat aliantza izango ditu. Alde batetik, eremuko udaletxeak. Izan ere, herri edo hiri desberdinetan kultura bermatuko dutelako, garbitasuna bermatuko dutelako, gizartearen ongizatea bermatuko dutelako, etab. Beste aldetik, gizarteratze prozesuan lan egiten duten pertsona edo taldeekin ere aliantza bat izango dugu. Hauek, udaletxeekin batera, gizartea hobetzeko eta berritzeko ahalmena egiten dute, hainbat ekintza bermatuz. Izan ere, nerabe edo gazteen laguntza dohainik izango dute bere proiektuetan.

Negozio ereduak funtzionatzea ahalbidetzen duen hornitzaile eta bazkide sareak osatzen dituzte, horregatik beharrezkoa da enpresa batek itunak ezartzea. Alde batetik bere negozio eredu optimizatzeko. Beste alde batetik, arriskuak murrizteko eta azkenik baliabideak eskuratzeko. Gure kasuan proiektua aurrera eramateko funtsezko eragileak ditugu, hala nola: Gure hiriko eta herriko udaletxeak, gure lankideak, gurekin lan egiten duten kideak eta enpresak... Hauek hurrengo rolak betetzen dituzte; Sormena eta irudimena garatzea, ideia berriak bermatzea, proiektuak sortzea... Gainera gure proiektuaren barruan elkarte ezberdinak daude. Aliantza mota ezberdinak daude baina, aliantza mota bakoitza ondo bereizitako estrategien emaitza da. Gure kasuan erosle eta hornitzaile arteko harremanak, materialen eskuragarritasuna bermatzeko da. Hau da, aliantza mota honen bitartez, gure proiektua eta jarduerak aurrera eramateko beharrezkoak ditugun baliabideen eskuragarritasuna bermatzea lortzen dugu. Hortaz, gure aplikazioa sortzeko eta honen diseinu pertsonalizatuak aurrera eramateko, teknologiak kudeatzeko gaitasuna duten pertsonekin lan egingo dugu. Hortaz, gure proiektuari ikusgarritasuna emateko, marketinean aritzen diren pertsonak oso garrantzitsuak izango dira, ahalik eta gazte gehienek eskuratzeko. Azkenik, gure finantza-plangintza eta etorkizuneko gastuak eta sarrerak kudeatzeko, espezializatutako pertsonala gurekin lan egingo du.